






24 orduko txiza zuzen jasotzeko argibideak.




Analisiaren bezperan, goizeko lehenengo txiza komuneko zulotik bota ezazu, ohi bezala



Txiza jaso eta edukiontzian gorde egun osoan.



Baita gau osoan zehar ere.



Analisi eguneko lehenengo txiza ere jaso eta gorde behar duzu.

- ✧ Behar baduzu, txiza egin lehendabizi ontzi batean eta, jarraian, bota edukiontzira.
- ✧ Txiza egin ezazu kaka baino lehen, nahigabe gernurik ez galtzeko.
- ✧ Emakumeek ez dute txiza jaso behar hilekoa dutenean, ez eta bi egun geroago ere, emaitza erratuak atera bailitezke gernua eta fluxu baginala nahasiz gero.
- ✧ Sukarra baduzu, gaixo zaudelako gripearekin, hotzeriarekin, gernuko infekzioarekin eta abarrekin ez ezazu txiza jaso.
- ✧ Gorde ezazu edukiontzia txizarekin leku fresko batean.